

Irizar i6S-ren 2.000. unitatearen entrega Autocares Aizpurua enpresari

Ormaiztegin, 2019ko uztailaren 19an.

Irizarrek bere i6S autokar modeloaren 2.000. unitatea entregatu dio Autocares Aizpurua enpresa gipuzkoarrari, Ormaiztegin dituen instalazioetan egindako ekitaldi batean.

Irizar i6S autokar modeloaren 2.000. unitatea 12,20 metroko ibilgailua da, Scania K450 EB 4x2 bastidorearen gainean. Autokarrak 55 eserleku bigun ditu, i6plus modeloa, Bosch Professional Line III audio ekipoa, TDT telebista, helmuga adierazten duen kartela aurrealdean eta beira bikoitz tindatuak. Gainera, USB erako kargagailuak ditu autobus gidariarentzat eta bidai gidariarentzat, estribuko kamera, hegazkin erako tapa ibilgailu guztian, eta aurreberogailua programatzailearekin.

Ibilgailu hau Autocares Aizpurua enpresak bere flotan dituen ibilgailuei batzen zaie, une honetan 29 baitira, eta horietatik 23 Irizar etxeokak. Horrek erakusten du, beraz, enpresa bien arteko elkarlanaren hasiera-hasieratik, hau da, orain dela 45 urte baino gehiagotik, egon den konfiantza eta harreman estua, bere historian Irizarren 130 ibilgailu baino gehiago edukitzera eraman duena.

2016an aurkeztu zen Irizar i6S modeloa eta harrez gero sendotzen joan da erreferentzia gisa, ibilbide ertain eta luzeko lineetarako eta eskatu ahalako zerbitzurako sektorean. "Espainiako 2017ko Autokar" izendatu da Irizar i6Sa, eta arrakasta lortzen jarraitzen du, eta une honetan erreferentzia da irudiari dagokionez, bidaiariei zerbitzu aparta, segurua, modernoa, pertsonalizatua eta eroso eskainita.

Irizar i6saren ezaugarri estetikoak i8 ikaragarriaren antzekoak dira, eta Irizar markaren modelo berriek duten abangoardiako teknologia dauka. Kalitatea, segurtasuna, sendotasuna, diseinua eta fidagarritasuna dira nortasun berezia duen modelo honen ezaugarri bereizgarrienetako batzuk.

Autocares Aizpurua familia enpresa bat da, eta 1967tik bidaiarien garraioan dihardu. Antonio Aizpurua jaunak sortu zuen enpresa, bere sei seme-alaben babesarekin, eta haien esku dago enpresa gaur egun. Hasieran, beste enpresa batzuen ibilgailuak erosi zituzten zerbitzu guztiei erantzuteko, baina 1972an Irizar-Scania gama altuko ibilgailuak



erostea erabaki zuten. Gaur egun, enpresak 3.000 m²-ko nabe bat dauka, eta horrekin egoki egin ditzakete flotaren eguneroko zaintza eta mantentze lanak.

Informazio gehiago:

Ana Eceiza

Posta elektronikoa: aeceiza@irizar.com

Tel. : + 34 667181833